

NAHIKO! 5-6

BIZITZA PROIEKTUA

2 UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEEN GIDA (1/2)

1 HELBURUAK ETA EDUKIAK

Pertsona bakoitzaren bizitza lau esparru edo arlo nagusietan eraiki eta bizi dela ulertaraztea: ni-neu (norberaren nortasun, ahalmen, zaletasun, sentimendu...), familia (gure gizartean, afektiboki maitasun lotura dituzten eta etxe berean bizi eta eguneroko bizimodua elkarbanatzen duten pertsonak), lana (persona bakoitzaren jarduera profesionala edota sozio ekonomikoa) eta gizartea (pertsona bakoitzaren harremanak eta bere bizitza soziala).

Arlo hauek elkarren artean lotuta daudela azaltzea eta aztertzea. Esparru batean ari garenean, nahiz eta honek lehentasun handiagoa izan eta eginbehar gehiago eskatu, beste hiru esparruok ere gurekin daramatzagula eta kontu egin behar diegula. Are gehiago, batzuetan, ari garen esparruari aurrea hartzen diotela beste horiek. Hots, adibidez, lanean aritzen garenean, familia ere gogoan izan behar dugula, batzuetan lehentasuna emanez, eta alderantziz, familian aritzen garenean, lana ere buruan izaten dugula eta, batzuetan, premiazkoa denean, lehentasuna eman behar izaten zaiola.



Gure bizimodua lau arlo hauetan egiten dugula gaur egun eta, etorkizunean ere, lau esparruetan proiektatu, prestatu eta bizi beharko dugula pertsona orekatuak, osoak eta autonomoak izan nahi badugu ulertaraztea. Soilik arlo bat landu edota arlo batean bizi den pertsona ezin dela persona orekatu, oso eta autonomoa izan, beste batzuen morroia baizik, beste batzuen menpekoa. Eta persona orekatu, oso eta autonomoa izan gabe, oso zaila direla norberaren askatasuna eta elkarrenganako errespetua, maitasuna eta bizikidetzeta. Hau guztia (pertsonek arteko harreman pozgarri, lagungarri, betegarri eta sendagarriak) soilik berdintasunetik, parekotasunetik eta askatasunetik lor daitezkeelako.

Aurreko hau horrela izanda esandako lau arloetan, areagotu egiten da soilik familiaren arloan bizitzeko proiektua duten pertsonengan. Gaur egun, gure gizartean, lan munduan bizi ez dena, autonomi ekonomikoa ez duenak, hau da, emplegu bat ez duenak guztiz menpeko persona bilakatzeko arrisku larria du, gizarte eta familiarentzako bigarren mailako pertsona bilakatu, bere bizitzaren jabetza galduz eta bere proiektu pertsonala besteenera makurtuz edota guztiz baztertuz.

Pertsona bakoitzak esandako lau arloetan duen bizimoduak bi osagai nagusi dituela aztertu eta ulertarazi: bizitzak bakoitzari ematen diguna (gure zirkunstantzia edo baldintzak) eta bakoitzak bere adonez erabaki eta egiten duena. Bizitzan tokatzen zaiguna eta bizitzan aukeratzen duguna. Bizitzaren loteriak ematen dizkigun sari on eta txarrak, eta guk erabakitzen eta gauzatzen ditugun proiektuak.

Pertsona bakoitza den proiektua, gure ikasle bakoitza den proiektua ez dela ezerezetik abiatzen ikus eta ulertaraztea, norberari bizitzan tokatu zaion guztitik baizik. Nahi dugun proiektua bizitzak eman dizkigun osagaiekin eta guk lortzen ditugunekin egiten dugu eta egin behar dugu. Ezin dugu baldintzarik gabeko proiekturik aurrera eraman. Zentzu horretan, gure bizitzaren proiektua egiterakoan, ez dugu askatasun absolutorik. Baldintzatuta gaude eta bizitzaren loteriak zer eman digun ondo jakin behar dugu, gero, ahal den neurrian, gure nahi eta proiektuetan uztartu eta erabili ahal izateko.

Pertsona bakoitzak bere proiektua egiteko eskubidea duela ulertarazi. Bizitzaren loteria ez dela patu itxia, askatasunerako tresna eta materiala baizik. Bizitzaren lau arlo nagusietan tokatu zaigun hori landu ala baztertu egin dezakegulako, erabili ala ez, aldatu ala berean utzi, onartu ala kontra egin... Eta tokatu zaigunaz gain, guk geuk beste gauza asko egin, bilatu, lortu, eskatu edo asmatu egin dezakegulako. Horrela jokatzeko eskubidea dugulako.

Pertsona guztiak proiektu pertsonala egiteko eskubidea dugula eta, era berean, proiektu hori aldatzeko eskubidea dugula ulertarazi. Proiektuak egin eta aldatzeko eskubide hau gizabanako bakoitzarena da eta ez taldearena. Familiak persona bakoitzaren nahi eta proiektua errespetatu behar du, bai familian dagoen bitartean eta, bereziki, taldea lagatzea erabakitzen duenean. Familiaren proiektua pertsonen zerbitzura egon behar delako, eta ez alderantziz. Pertsona bakoitzak bere proiektua aukeratu, egin eta aldatzeko eskubidea duelako.

2 MATERIALAK ETA EKINTZAK

Unitate didaktiko honek **bi material edo jolas osagarri** hauek ditu:

- 1.- "Bizitzaren Loteria" jolasa.
- 2.- "Bizitzaren jolasa".

Eta **bost koaderno** hauek:

- 1.- Irakaslearen gida, bi koaderno (1/2 eta 2/2), kolore urdinekoak.
- 2.- Ikaslearen "Bizitza Proiektua" bi koaderno (1/2 eta 2/2) kolore horikoak.
- 3.- Familiaren "Bizitza Proiektua" koadernoak, kolore berdea duena.

Hona materiale hauek erabiliteaz gain proposatzen ditugun beste **ekintza osagarri batzuk**:

-Loteria kartoi amankomunak. "Bizitzaren Loteria" jolasarekin jolastu ondoren, talde txikitan bildu eta "loteria kartoi" amankomunak egin, hau da: zer gauza onak eta txarrak tokatu zaizkigu taldeko guztiei bizi garen lekuan bizi garelako, gauden eskolan gaudelako, dugun adina dugulako eta abar. Beti ere, bizitzaren lau esparru edo arlo nagusiak kontutan izanik. Gero, denok batera, talde guztien kartoiak konparatu eta gelako kartoi amankomuna egin.

-Bizitzaren ordularia. Eskola egun baten eta jai edota asteburuko egun baten ordutegia bete behar dute, osatu, bizitzaren lau hanken koloreekin: urdina-ni neu, horia familia, berdea-gizartea eta magenta edo gorria-lana. Aurrena bakoitzak berea egin dezala eta gero amankomunean jarri, batzbesteko bat eginez. Hau, % atera, eta ordulari baten gainean margotzen da, bisualki ikus ahal izateko. Bizitza orekatua daramagu? Zeri eskeintzen diogu denbora gehiago? Zeri gutxiago? Zergatik? Zerbait aldatu beharko genuke? Helduak garenean denbora era berean erabili ahal izango dugu?



-**Nesken kartoia eta mutilen kartoia, ala nere kartoia?** “Bizitzaren jolasa”-rekin jolastu ondoren edota aurretik, bi talde egin, mutilena alde batetik eta neskena bestetik. Talde bakoitzak, bere ustez bizitzaren loteriak zer gauza on eta zer gauza txar ematen dizkie orokorki gehiago mutilei eta gutxiago neskei, eta alderantziz, gehiago neskei eta gutxiago mutilei. Beti ere, etengabe aipatzen ari garen lau esparru edo arloetan, bizitzaren lau hanketan: ni-neu, familia, gizartea eta lana. Gero, denok batera, talde bakoitzak egin dituen kartoiak aldentu eta, ezberdintasunak baleude, zergatik dauden aztertu. Azkenik, norberak bere kasuan, bere sexuko kartoiak noraino egokitzen zaion idatzi beharko du lerro gutxi batzuetan.

-**Lagun aholkularia.** Binaka bilduta, ikasle bakoitzak hau esan behar dio besteari: bere ustez eta berak dakien neurrian, zer gauza onak tokatu zaizkion besteari bizitzan, zer gauza onak aukeratu edo egin dituen besteak bere kabuz eta, berak ezagutzen duenetik, izan dituen aldaketarik handiena eta hoberena.

3 “BIZITZAREN LOTERIA” JOLASA

OSAGARRIAK:

Kartoiak: 32 ezberdin.


Ozenki kantatzeko 96 txartel txiki.

Kartoietan esaldiak estaltzeko 300 fitxa.

Jolasteko **32 kartoia**, 1etik 32ra zenbatuta. Bakoitzak hamahiru koadro ditu, lau lerrotan. Lerro bakoitzak bizitzaren arlo nagusi bat ordezkatzeko du eta bere kolorea darama: ni-urdira, familia-horia, gizartea-berdea eta lana-magenta. Hauetako lerro edo arlo bakoitzean, bizitzan suertatu daitezkeen gauza onak (urdinez idatzitakoak) eta txarrak (gorriz idatzitakoak) daude, beti ere positiboak negatiboak baino kopuru handiagoan. Poltsan sartu, nahastu, atera eta ozenki kantatzeko 96 txartel daude, esaldi banarekin (24 arlo bakoitzeko, 12 on eta 12 txar). Kantatu ondoren, jokalarien kartoietan esaldien gainean jartzeko 300 fitxa txiki daude, Nahiko programaren logoarekin.

Bingo, lotto, loteria edo kina dinamikako jolasa: Kartoiak nahastu eta banatu egiten dira jokalarien artean, bakoitzari bat emanaz. Nahiko fitxa txikiak erdian jartzen dira, norberaren kartoiaren ozenki esaten den esaldia estaltzeko. Irakasleak edota ikasleren batek jokaldi bakoitzean, kantatzeko 96 fitxak poltsan sartu, nahastu, banan-banan atera eta ozenki irakurtzen ditu. Jokalariren batek bere kartoia osatzen duenean, hots, bere esaldi guztiak ozenki irakurri izan direnean, bukatu da jolasa. Nahi izanez gero, “linea” edo “lerro” irabazleak ere egon daitezke, esparru bakoitzeko “lerro irabazle” bat egon daitekeelarik.

Normalean, **jokaldi bat baino gehiago** jolastuko denez, jokaldi bakoitzean irabazle suertatzen den kartoia erretiratu egiten da eta jokaldi guztiak bukatzen direnean, irabazle gertatu diren kartoia guztiak aztertzen dira gelan, nahiz denok batera nahiz taldeka, kartoia horietatik zein izan daitekeen orekatuena, “hoberena”, zoritxarrekoena, errealistena... zein aukeratuko lukete, zein ez... zergatik, zer aldatuko zenuteke, zer landu, zer baztertu... etabar luze bat.



NAHIKO! 5-6

BIZITZA PROIEKTUA

2 UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEEN GIDA (2/2)

4 BIZITZAREN JOLASA / BIZITZAREN LAU HANKAK

OSAGARRIAK:

Bi taula, ohialean inprimituta (ezin da ikuzgailuz garbitu, garbitzekotan lehorrean garbitu behar da).


Galdera-txartelak: lau galderako 54 txartel.

Arlo-txartelak: 4 txartel arlo bakoitzeko, 16 denetara.

Lau koloretako partxis-fitxak bere kubilete eta dadoekin.

Bi taula daude, horrela nahi bada, ikasleekin bi talde egin eta bietan jolastu ahal izateko. Kasu honetan, partxis fitxak eta galdera-esaera txartelak bi taldeen artean banatu behar dira (hauek elkarrekin trukatzuz denak erabili ondoren).


Taularen zati bakoitzak bizitzaren arlo edo esparru nagusi bat adierazten du: ni-neu, familia, gizarte eta lana, hots, bizitzaren lau hankak. Taula zati bakoitzean arloko kolorea nagusitzen da (adibidez horia familiaren zatian) baina beste kolore edo esparruko laukitxoak ere badira bertan. Honekin zera azpimarratu nahi da: edozein esparruan aritzen garenean, beste esparruak ere gurekin daramatzagula eta kontutan izan behar ditugula, gure bizitza bere osotasunean ulertuz eta onartuz, arloen arteko oreka mantenduz eta guztietan gure erantzunkizunari eutsiz.



Jolasak **Trivial ezagunaren antzeko dinamika** du. Jokalari edo jokalaritalde bakoitzak fitxa kolore bat aukeratzen du jolasteko eta kolore horretako irteera laukitxotik abiatzen da (taularen lau erpinak). Kolore bereko kubiletearekin jolasten da. Jolasaren muina hauxe da: esandako bizitzaren lau arloetatik pasa, bakoitzean erdiko laukira iritsi eta arlo-txartela lortu, eta, lauak eskuratu dituenean, hasierako laukitxora itzuli.

Jokalariek dadoaren balioaren arabera egiten dute aurrera taulan. Jokaldi-txanda bakoitzean, dadoa bota eta aurrera egin ondoren, galdera-txartel multzotik bat hartu eta erori den laukitxoaren koloreko galdera egiten zaio. Asmatzen badu, berriro jaurti dezake, baina jokalditxanda bakoitzean gehienez hiru bider.

Hau da: txanda denean, bota eta mugitu; galdera asmatzen badu, bota eta mugitu berriro; galdera berria asmatzen badu; bota eta mugitu azken aldiz eta kitto, hurrengoaren txanda da. Galdera gaizki erantzuten bada, ezin da jarraitu, txanda hurrengoarena da.



Galdera txartel bakoitzak lau galdera ditu, bakoitza esparru batekoa, arloko kolorearekin identifikaturik. 54 arlo-txartel direnez, 216 esaldi edo galdera daude denetara. Galderek esaldi bat egia ala gezurra den galdetzen dute. Esaldiak esaten ohi diren aurreiritzi edo topikoetan oinarrituta daude, eta jolasean hasten denean, eztabaida edo elkarrizketarako gai ugari eman dezakete. Bereziki gauzak “nola diren” eta “nola izan beharko liratekeen” arteko anbiguotasun eta zalantza sor dezaketenak: egia da, ez da egia baina izan beharko litzake, zer esan nahi du?, gertatzen dela ala berez horrela izan behar duela, nere etxean ez, baina gehienetan bai... eta abar luze bat.

Zalantza eta hausnarketa hauek dira jolas honen gakoa eta helburua. Horregatik, jokalaria bakarrak baino, jokalaria-taldeak dira honetarako egokiagoak, heuren artean elkarrizketa eta hausnarketak pizteko, galdera bakoitzaren aurrean iritzi eta argudiaketa sortarazteko.

Zentzu horretan, partehartze eta elkarrizketa handiena lortzeko, agian **jokalaria-bikoteekin** jolastea izango litzateke egokiena.

Taula zati bakoitzeko erdiko laukian **arlo-txartela** lortzeko, behin dadoaren tirada zehatzarekin bertara iritsi ondoren, beste laukitxoetan bezala, bere koloreko galdera bat erantzun behar da, besterik ez. Arlo bakoitzeko bi arlo-txartel daude, beraz, horrela nahi izanez gero, jolasa luzatu egin daiteke jokalaria edo jokalaria-talde bakoitzak arlo bakoitzeko biak lortu dituela esanez (ez biak jarraian, noski; tartean beste esparru batekoa lortuz baizik), edota jokalaria edo jokalaria-talde bakoitzak bi fitxekin jolas daiteke, fitxa bakoitzarekin lau esparruetako arlo-fitxak lortu behar dituelarik.



Azkenik, horrela nahi bada, jolasa **partxis jolaseko "hesiak"** erabiliz konplikatu daiteke. Hau da, jokalaria edo jokalaria-talde bakoitzak lau fitxekin jolastu eta, laukitxo batean bi ezarriz, beste jokalariei oztopo egiteko aukera zabaldu.

5 IKASLEAREN KOADERNOA

DIN A4 neurrira tolestutako eskuetan duzun bezalako bi DIN A3 dira. Kolore horia nagusi duen eta bitan banatzen den koaderno honek fitxa moduko zortzi atal hauek ditu:

- 1.- Bizitzaren Loteria.
- 2.- Bizitzak eman didana.
- 3.- Nik aukeratu eta egin dudana.
- 4.- Aldatzeko eskubidea.
- 5.- Naizena eta izan nahi dudana.
- 6.- Nork bere bidea.
- 7.- Giza eskubideen proposamena.
- 8.- Nere proiektua: ni 15 urte barru.

Nahiz eta lantxo gehienek aurretik azaldu ditugun jolasekin zer ikusirik duten, eta ekintza horiek egin ondoren, hizketarako beta handiagoa eta aberatsagoa egon daiketeen, aurretik jolasak erabili gabe ere ondo ulertu eta egin daitezke.

Lehenengoa, bigarrena eta zazpigarrena dira a proposenak taldeka egin edota, bakarka egin aurretik edo ondoren, taldeka lantzeko, hitz egin, guztion ekarpenak jaso eta ondorio amankomunak ateratzeko edo antzeko baliabideetarako. Beste atalak, berriz, gehiago dira norberaren hausnarketarako.

2 BIZITZAK EMAN DIDANA

Idatzi ezazu bizitzaren loteria kartoi honetan, zuri tokatu zaitzizun gauza onak eta berrak bizitzaren lau arloetan.

ZORIONKOA AL ZARA? ZERGATIK?

Egin gurutz bat dagozizun lekuan.

DIO TXARRA			

3 NIK AUKERATU ETA EGIN DUDANA

Euzkian tokiaren zaitzizun gauza batzuk bultzatu egin ditugu eta beste batzuk alde batera uzten ditugu. Eta tokiak ez zaitzizun beste asko guki biatu eta lortzen ditugu. Suertatu zaitzun material batzukin eta guki lortutako beste batzuekin, bakoitzak gure autoretratara, gure proiektua egiten ari gara. Horiek guztiak, urte hauetan, ezabatu egin dituzun. Gauza asko izasi dituzun, zure bidea egiten hasi gara. zure zaitzizunak dituzun, jende aurrean egiteko jarekerak, etxeko gauzak eta lanak, lagunak eta koadria. Haurtagioa baxildu zure eta dantza taldekoa. Idatzi berrak, ez bizitzaren loterian tokiak zaitzizunak, baina eta zuki zeuk aukeratu, izasi eta lortu dituzunak.

<p>NI NEU</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>Zaitzizunak, obiturak.....</p>	<p>FAMILIA</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>Zure gela, lan banaketa, egoen dinen aldaketak, obiturak.....</p>
<p>LANA</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>Eskolan eta etxeko kanpo itasitakoak.....</p>	<p>GIZARTEA</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>Parte hartzen duzun talde, elkarre, ekintza.....</p>

"BIZITZAREN JOLASA" -EAN ATENTZIOA DEITZU DIZUTEN ARLO BAKOITZEKO BI ESALDI IDATZ ITZAZU. BAT EGIA DENA ETA BESTE BAT GEZURRA DENA.

EGIA	EGIA	EGIA	EGIA
GEZURRA	GEZURRA	GEZURRA	GEZURRA

6 FAMILIAREN KOADERNOA

Eskuetan duzun bezalako DIN A3 bat da. Bere kolore nagusia berdea da. Fitxa moduko bost atal hauek ditu:

- 1.- Familiari tokatu zaion loteria.
- 2.- Nola zen nere bizitza txikitan.
- 3.- Erabaki garrantzitsuak.
- 4.- Lurrikada familian.
- 5.- Etxeko proiektuak.

Etxean eta etxekoekin egiteko pentsatutako lantxo erraz hauek, unitatearen bukaeran egitea komeni da, ikasleek jadanik eskolako materialak, jolasak, ekintzak eta koadernoaren egiten hasi direnean, hauek guztiekin lotuta baitaude, eta ikasleek hobeto ulertu eta azaldu diezaiekete etxekoei egiten ari direna.

Gehienak ikaslea eta etxekoak bildu, hitz egin eta bukaeran ikasleak berak idaztekoak dira. Bostgarrena berriz, etxekoek zuzenean idaztekoa da, eskubiko "lagunduko dizut" zutabea ezik, hau ikasleak bete behar du.

Denbora aldetik, helburua ez litzateke izango (horrela egin ahal bada ere) egun batean dena arin-arin egitea. Alderantziz, egokiena aste osorako lana proposatzea iruditzen zaigu. Poliki egiteko, egunean bat egiteko adibidez, betetzen oso errazak eta laburrak diren lantxo bakoitzaren aurretik, elkarrizketa eta jolas luze, aberats eta atsegin asko egon daitezten, familiarentzat eskolako betebeharrak gogangarriak izan ordez, aukera gozagarri bat izan daitezten.

BIZITZA PROIEKTUA	2. UNITATE DIDAKTIKOA	FAMILIAREN KOADERNOA	BIZITZA PROIEKTUA	2. UNITATE DIDAKTIKOA	FAMILIAREN KOADERNOA																																										
<h2>2 NOLA ZEN NERE BIZITZA TXIKITAN</h2> <p>IKASLEEK FAMILIAREN LAGUNTZAREKIN EGITEKO</p> <p>Etxekoei galdetuz ezazu zure bizitza txikia zinez, zuk gogoratzen ez duzun, bizitzaren lau arloetan idatz ezazu arripien aldatu diren lau gauza eta berdinak mantendu diren beste lau.</p> <table border="1"> <tr> <td>NI NEU</td> <td>FAMILIA</td> </tr> <tr> <td>ZURE ARGAZKIA</td> <td></td> </tr> <tr> <td>LANA</td> <td>GIZARTEA</td> </tr> </table> <table border="1"> <tr> <th>ALDATU DIREN GAUZAK</th> <th>ALDATU EZ DIREN GAUZAK</th> </tr> <tr> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> </tr> </table> <p>Zergatik eman dira aldatuta hauek, eta beste batzuk familian?</p> <table border="1"> <tr> <td><input type="checkbox"/> Arrazoirik gabe.</td> <td><input type="checkbox"/> Hobeto bizitzen ahalgindu delako familia.</td> </tr> <tr> <td><input type="checkbox"/> Familiakoek nahi izan dugulako.</td> <td><input type="checkbox"/> Patuak horrela nahi izan duelako.</td> </tr> <tr> <td><input type="checkbox"/> Bizitzaren eraginez.</td> <td><input type="checkbox"/> Zoriontsuago izateko.</td> </tr> <tr> <td><input type="checkbox"/> Familia behartuta sentitu delako.</td> <td><input type="checkbox"/> Ez dakigu.</td> </tr> </table>			NI NEU	FAMILIA	ZURE ARGAZKIA		LANA	GIZARTEA	ALDATU DIREN GAUZAK	ALDATU EZ DIREN GAUZAK									<input type="checkbox"/> Arrazoirik gabe.	<input type="checkbox"/> Hobeto bizitzen ahalgindu delako familia.	<input type="checkbox"/> Familiakoek nahi izan dugulako.	<input type="checkbox"/> Patuak horrela nahi izan duelako.	<input type="checkbox"/> Bizitzaren eraginez.	<input type="checkbox"/> Zoriontsuago izateko.	<input type="checkbox"/> Familia behartuta sentitu delako.	<input type="checkbox"/> Ez dakigu.	<h2>3 ERABAKI GARRANTZITSUAK</h2> <p>IKASLEEK FAMILIAREN LAGUNTZAREKIN EGITEKO</p> <p>Ziur egunen batean etxeko bakoitzak erabaki handi eta garrantzitsu bat hartu behar izan zuela. Galdetuz ezazu bakoitzari zure erabaki, zergatik eta zure ondorio izan zituen berarentzat eta familiarentzat.</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>NORK</th> <th>ZERGATIK</th> <th>ONDORIOAK</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> </tbody> </table>			NORK	ZERGATIK	ONDORIOAK															
NI NEU	FAMILIA																																														
ZURE ARGAZKIA																																															
LANA	GIZARTEA																																														
ALDATU DIREN GAUZAK	ALDATU EZ DIREN GAUZAK																																														
<input type="checkbox"/> Arrazoirik gabe.	<input type="checkbox"/> Hobeto bizitzen ahalgindu delako familia.																																														
<input type="checkbox"/> Familiakoek nahi izan dugulako.	<input type="checkbox"/> Patuak horrela nahi izan duelako.																																														
<input type="checkbox"/> Bizitzaren eraginez.	<input type="checkbox"/> Zoriontsuago izateko.																																														
<input type="checkbox"/> Familia behartuta sentitu delako.	<input type="checkbox"/> Ez dakigu.																																														
NORK	ZERGATIK	ONDORIOAK																																													
<h2>4 LURRIKADA FAMILIAN</h2> <p>IKASLEEK FAMILIAREN LAGUNTZAREKIN EGITEKO</p> <p>Agian egunen batean, onerako edota berrerako, familia osoa astindu zuen zerbaitek gertatu zuen, guztion bizimodua aldatu. Galdetuz ezazu zer eta noiz gertatu zen. Nola egin zion aurre familial? Nola aldatu zituzten bizimodua?</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>ZER ETA NOIZ</th> <th>FAMILIAKIDEN ERANTZUNA: ONDORIOAK, ALDAKETAK...</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> </tr> </tbody> </table>			ZER ETA NOIZ	FAMILIAKIDEN ERANTZUNA: ONDORIOAK, ALDAKETAK...																																											
ZER ETA NOIZ	FAMILIAKIDEN ERANTZUNA: ONDORIOAK, ALDAKETAK...																																														